

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

Jose María Herce Isasmendi  
Igor Ezpeleta  
Jose Angel Petralanda Gil  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko abenduaren 17an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ez Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Iregui eta Landa andreak eta Cantero jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 17 de diciembre de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten las Sras. Iregui y Landa y el Sr. Cantero.

## **1. ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

Ez da egon.

## **2. DEIALDIKO GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Bigarren puntuan Madinabeitia jauna abstenitu egin dela kenduta, bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin ondorengo gai hauek gai zerrendan sartzea berretsi da:

- ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO KONTRATUA LUZATZEA.
- EIOZ-EN HOBARIA EGITEKO IÑAKI MADINABEITIA JAUNAK EGINDAKO ESKARIA.

## **3. ESKORIATZAKO UDALEKO EUSKARAREN ERABILERA PLANA. V. PLANGINTZALDIA (2013-2017) ONARTZEA.**

2013an ekin zaio EAEko euskararen normalizaziorako V. Plangintzaldiari, eta 86/97 Dekretuak, EAEko herri administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, ezarritakoari jarraituz Erabilera Planaren egokitzapena egitea dagokio Eskoriatzako Udalari plangintzaldiaren lehen urtean, hau da 2013an.

Hori dela eta, "Eskoriatzako Udaleko Euskararen Erabilera Plana: egokitzapen proposamena. V. Plangintzaldia (2013-2017)" izeneko egitasmoa aurkeztu zen 2013ko azaroaren 27an izandako Komunikazio eta Parte-hartze batzordean.

Batzordeak egindako proposamenarekin bat etorritik, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin erabaki da:

**LEHENENGOA:** "Eskoriatzako Udaleko Euskararen Erabilera Plana. V. Plangintzaldia (2013-2017)" egitasmoa onartzea.

**BIGARRENA:** Onarpenaren berri Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari jakinaraztea.

## **4. ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO KONTRATUA LUZATZEA.**

2010eko abenduaren 29ko Alkate erabakiz eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua emateko kontratua HEMEN GARBIKETAK S.L. enpresari esleitu zitzaion. Kontratuaren hasierako iraupena BI urtekoa zen.

Aipatutako kontratua arautzen duen baldintza-agiriko bosgarren baldintzaren arabera, kontratua urte betez luzatu daiteke bi aldiz; eta guztira, luzapenak barne, ezingo du 4 urtetik gora iraun. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikuluaen arabera.

Kontratua behin luzatu da. Hirigintza batzorde informatzaileak txostena egin du, eta bertan esaten du komenigarria litzatekeela kontratua beste urte batez luzatzea.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako Udalaren jabegoko hainbat ikastetxe eta udal eraikin garbitzeko zerbitzua emateko kontratua luzatzea urtebetez, baldintza agiriko bosgarren baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aurreko urte naturaleko Kontsumorako Prezioen estatuko Indizean oinarriturik gaurkotuko da kontratuaren prezioa.

**Bigarrena.-** Esandako luzapenari dagokion gastua baimentzea eta konprometitzea.

*Merino jaunaren boto azalpena:* Kontrako botoa justifikatzeko ondorengo esan du: Enplegu publikorik ez dago hemen, hemen publikoa paperean da, gauzatu behar denean, ezer ez. Urteak daramatzat gauza bera esaten.

## **5. UDAL TALDEENTZAKO DIRU IZENDAPENAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK ALDATZEA.**

Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 73.3 artikulua honako hau ezartzen du: korporazioko osoko bilkurak diru-zuzkidura bat izendatu dezake talde politikoentzat korporazioko urteko aurrekontuen kontura; osagai bat finkoa izango da, talde guztientzat berdina, eta beste osagaia aldakorra, talde bakoitzeko kide-kopuruaren arabera, Estatuko aurrekontu orokorren legeetan orokorrean ezar daitezzen mugen barruan; eta ezin izango dira erabili korporazioaren zerbitzura diharduten ezelango langileen lansariak ordaintzeko, ez eta ondare moduan aktibo finkoak eratzeko balio dezaketen ondasunak eskuratzeko ere.

Eskoriatzako Udaleko talde politikoen eraketa ikusita 2011ko ekainaren 23an Udalbatzarrak hartutako erabakiari jarraiki, Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, aurrez eztabaidatu ondoren, eta Merino jaunak eta Urrutia jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde, UDALBATZARRAK honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 73.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Udal honetan eratutako talde politikoentzako urteko diru-zuzkidura honela finkatzea:

% 40a talde guztien artean berdin banatzea.

% 60a proportzionalki banatzea talde bakoitzak legez duen zinegotzi kopuruaren arabera.

### **Eztabaidan esandakoak:**

\* Merino jauna: 2008-2009an ANV-k gobernatzen zuen Udal honetan gehiengo osoz. Auzitegi Nazionalak ANV ilegalizatu zuen eta bere kontu guztiak interbenitu zituen. Udal honek, ez egurrrik ebaki ez aizkora eman, legez kendu ezin dena izan ezik, diru izendapen guztiak kendu zizkien talde politikoei. Hori izan zen aurreko agintaldian banaketa hori kendu izanaren arrazoia. Orain arte ez duzue ezer esan, zein da horren arrazoia. Ez dut uste zuk esandakoa izango denik. Beharbada, aurreko alkateak zuen soldata % 34a igo ondoren oraindik iristen ez zaizuelako nahikoa ez izatea izango da. Ez zaizue soldata iristen? Zergatik egiten duzue hori?

\* Alkate jaunaren erantzuna: Ogasun batzordeak uste du aldaketa zentzuzkoa dela. Ez da dirurik ez dugulako, bestela, hasieratik egingo genuen. Diru faltan izan bagina % 100 proportzionalki banatuko genuen. Uste dugu logika hutsa duela gure proposamenak: zati finko bat eta zati aldakorra, eta gainera, legeak horrela aurreikusten du. Bere garaian zati aldakorra kentzea ez dut uste ilegalizazioagatik izango zenik, uste dut eragina izan zuela ere momentu horretan Udalak zuen egoera ekonomikoak. Batzordean izan ginen guztiok uste dugu proposatzen dugun banaketa gutziz logikoa dela.

\*Urrutia jauna: hasteko, galdetu du zeintzuk diren talde politikoak. Jakinarazten zaio 2013ko ekainaren 23ko udalbatzarrean eraturakoak. Ondoren horrela jarraitu du: progresibitatearen ikuspegitik irizpide hori ez da oso egokia, gehiago ematen diolako gehiago duenari. Nik ere nahiko nuke historia pixka bat egitea. Hemen gauzak ilegalizazioarekin nahastu ziren, eta ez une hartako egoera ekonomikoarengatik. Egon zen lehen proposamena izan zen ANV-k, edo Ezker Abertzaleak, ezin zuenez kobratu, inork ez kobratzerik. Eta PSEko orduko zinegotzia izan zen gogorren egin zuena proposamenaren aurka, eta horri esker, mantendu ahal izan da azken urteetan mantendu izan dena. Esan duzu lehengo irizpide bat zela, bai, baina, lehengo diru izendapena eta oraingoa ez dira berdinak. Esan duzu diru faltagatik izango balitz % 100 proportzionalki banatzea proposatuko zenuela, bada, ez dakit. Nik ikusten dudana da kontuak egiten baldin baditugu, lehenengo gutxiago kobratu zela ezker abertzalearen ilegalizazioaren arazoarengatik eta gutxieneko kopuru bat utzi zela. Orain, kontuak egiten baldin baditugu, zinegotzi bakarra dugunok lehengo irizpideekin baino gutxiago kobratu behar dugu. Pixka bat miserablea iruditzen zait, nahiz eta oso ondo gelditu horrela publikatuta Goienan. Honek populismo usain handia du, baten diruak mantentzen ditu eta besteenak jaisten ditu.

\* Alkate jauna: argitu gura dut taldeei ematen zaien dirua taldeen funtzionamendurako dela eta uste dugu zinegotzi gehiago duenak funtzionamendu gastu gehiago dituela. Gutxi dela? Bada, proposamenen bat egin.

\* Merino jaunak dio 10 urte daramatzala hemen eta inoiz ez duela txakur txikirik ere jaso zinegotzi izatearren, ez dela borrokan ari berak zinegotzi izatearren kobratu behar dituen edo egon daitezkeen diru batzuegatik.

Bere txanda amaitzeko eskatu du webgunean argitaratu dadila, eta Alkateak baietz erantzun dio, horrela egingo dela.

## **6. 2014KO AURREKONTUA HASIERA BATEAN ALDATZEA.**

Alkateak hitza hartu du eta ondoren hitzez hitz jasotzen dena esan du:

2014rako aurrekontu proposamena hilabetetako lanaren ondorio da. Irailean, datozen 2 urteetako lehentasunen inguruko hausnarketa egin zen, eta horren arabera garatu ziren aurrekontuok. Ondoren, arlo bakoitzak bere aurrekontu proposamena aurkeztu du eta errealitatera egokitu dira; emaitza, aurrean dauzkazuen aurrekontuak izanik.

Sarrerei dagokienean, nahiz eta zerga eta tasa garrantzitsuenak (bi ezik) izoztu, sarrera gehigarriak aurreikusten ditugu hurrengo urterako. Batez ere, UFFF-aren gorakadagatik, zerga eta tasak eguneratzeagatik, iruzurra minimizatzegatik eta hainbat urtetan aurrekontuetan sartu izan ez diren diru laguntzak 2 urtez konfirmatu direnez, aurten txertatu ditugulako. Hala ere, tentuz eta zuhurtzia guztiaz egindako aurreikuspenak dira, egungo koiunturan handia delako ziurgabetasuna.

Urtero bezala, eta oinarrizko aspektu gisa, gizarte beharrianak bermatzen dituzten aurrekontuak dira hauek, eta nahikoa ez balira, konpromiso irmoa adierazten dugu hala izan daitezen.

Beste printzipiotako bat udal zerbitzuak mantentzearena izan da, gastu korrontearen karga neurtuz eta, posible izan den kasuan, murriztuz. Kontratu garrantzitsu batzuk berrikusi dira Udalarentzako ekonomikoki hobetuz, aurreko urtetan egindako berrikusketen ondorioz emaitzak igartzen hasi direlako. Zerbitzu batzuk, gainera, indartuta aterako dira.

Lehen aipatu bezala, lehentasun estrategikoak finkatu ditugu 2014 eta 2015erako . Lehenik eta behin, ekonomia eta enplegua: bai udaletik bai eta parte garen Debagoieneko Garapen Agentziatik esfortzu garrantzitsua egingo da zentzu horretan enplegua sortzeko, ekintzailetasuna sustatzeko, tokiko komertzioari laguntzeko eta enpresen lehiakortasun eta dibertsifikazio nahiz internazionalizazioa garatzeko. 2014an, EJ-k eta GFA-k emandako diru laguntza bidez beste 3 kontratazio egingo dira.

Gainontzeko lehentasunen artean, euskara, berdintasuna, errespetua (bere zentzu zabalean) eta bizikidetzaren daude, eta planifikatutako ekintzek beren isla dute aurrekontu hauetan.

Inbertsioei dagokienez, Udalaren gaitasuna nahi genukeena baino murriztagoa da, eta ondorioz, lehentasunak markatu behar izan ditugu; eta, hala, bi inbertsio mota txertatu ditugu aurrekontutan: duten arrisku mailagatik urgentziaz aboratu beharrekoak, ingurumenaren zaintzara bideratutakoak, eta inbertsio produktiboak, hau da, inbertsioa burutzeak gastu arruntaren murrizketa suposatzen dutenak. Ondorioz, hauek dira burutuko diren inbertsio garrantzitsuenak: Olazar eta hilerri artean dagoen hegalean horma berreraikitzea, kiroldegiko galdara gela konpontzea eta igerilekuko sakonera murriztea, Olazar eta industrialdeko bidegorriko argiteria aldatzea, Hidalgo kalean impermeabilizazio lanak egitea, hilerrian egingo diren lanak, elizateetako inbertsioak, auzokonpostagune berriak eta mankomunitatetik bideratuko diren hondakin bilketa berrirako -edozein delarik ere sistema- aurreikusitako inbertsioak.

Martxan diren beste proiektu batzuk borobiltzeko urtea ere izango da 2014a, mugikortasun proiektua, Zaldibar antzokia irekitzea eta martxan jartzea, komunikazioa eta parte hartze prozesuak, turismo, hezkuntza eta beste alorretan ere hasitako hainbat kontu kontsolidatu edo indartzea. Ondorioz, pozik agertzen gara hasierako onarpena izan dezaten hona ekartzen dugun aurrekontu proiektu honekin.

Alkateak hitz egin ondoren hitza eman die gainerako talde politikoetako bozeramaleei.

Madinabeitia jaunak dio elizateetako inbertsioetan laster akordioaren bat lortuko den itxaropenarekin bozkatzeko duela.

Beste inork ez du hitz egin.

Bozkatu egin da, eta aurkako 2 botorekin (Merino jauna eta Urrutia jauna) eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehena.-** Hasiera batean onartzea honako kopuru honetako udal aurrekontua: 5.327.970,42 €.

**Bigarrena.-** Hasiera batean onartzea Telesko-Udal Telebista fundazioaren honako kopuru honetako aurrekontua: 58.393,01 €

**Hirugarrena.-** 2014ko aurrekontua exekutatzeko oinarriak eta 2014ko aurrekontu orokorra osatzen duen gainontzeko dokumentazioa hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bategineko 445. artikuluan ezarritakoaren arabera

**Laugarrena.-** Erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko 15 eguneko epean erreklamaziorik ez balego behin betikotzat jotzea.

## **7. 2014KO LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.**

Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.** 2014rako plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda onartzea hasiera batean. Lanpostu zerrendan ondorengo aldaketak sartu dira 2013ko zerrendarekiko:

- Hutsik zegoen administrari laguntzaile partekatu lanpostua “administrari partekatua” izatera pasatzen da, ondorengo aldaketekin oraingo deskripzioarekiko:
  - TALDEA: C2/C1
  - OINARRIZKO ORDAINSARIA: C2/C1arena
  - LANPOSTU-MAILAKO OSAGARRIA: 17
  - HIZKUNTZ ESKAKIZUNA: zehazteke.
  - ARDURA NAGUSIAK:

Administrari lanak egitea ondorengo arloetan: KULTURA, EUSKARA, GIZARTE ZERBITZUAK ETA HERRITARRENTZAKO INFORMAZIO ETA HARRERA ZERBITZUA (arlotan bezala herritarrentzako informazioa eta harrera zerbitzua gehitu zaio).

- Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 19. artikuluan jasotzen den bezala, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako oharrei jarraituz, ondorengo lanpostuak lan-kontratudun langile finkoentzat gordeta daude:

Drogamenpekotasun teknikaria  
Gazteria teknikaria  
Museoko ekonomia kudeatzailea  
Museoko teknikaria  
Administrari partekatua

- Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 15. artikuluan jaso bezala, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako oharrei jarraituz, berariazko osagarria zenbatekoa izango den zehaztu beharko da, puntuak zenbat euro balio duen adieraziz.

**Bigarrena.** Dokumentu biak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## **8. BARRUNDIA ETA ESKORIATZA UDALERRIEN ARTEKO MUGAKETA ETA MUGARRIKETA AKTA ONARTZEA.**

Barrundiako eta Eskoriatzako udalerrien arteko mugak jarri eta muga-lerroa mugarriztatzeari buruz egindako espedientearen berri eman da. Espediente horretan jasotzen da Barrundia (Araba) eta Eskoriatza (Gipuzkoa) udalerrien arteko mugak jartzeko eta mugarriak eta muga-lerroak onartzeko 2013ko azaroaren 5ean elkarrekin egindako akta. Horiek horrela, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Barrundiako (Araba) eta Eskoriatzako (Gipuzkoa) udalerrien arteko mugak jartzeko eta mugarriak eta muga-lerroak onartzeko 2013ko azaroaren 5ean elkarrekin egindako akta onartzea.

**Hurrengo gaia aztertu aurretik, 19:15ean, Madinabetia jauna bilkura aretotik atera da**

#### **9. EIOZ-EN HOBARIA EGITEKO IÑAKI MADINABEITIA JAUNAK EGINDAKO ESKARIA.**

2013ko urriaren 16ko Alkate erabakiz, hirigintza lizentzia eman zitzaion Iñaki Madinabeitia Elorza jaunari ondoren adierazten diren obrak egiteko: Landa katastroko 4. poligonoko 361 lurzatia ixteko horma berreraikitze. Lurzati hori Mendiola Elizatean dago.

Lizentzia ematearekin batera, lizentziak sortutako tasa eta zergak kitatu ziren behin-behinekoz, 96,37 € eta 1.554,35 € hurrenez hurren.

2013ko urriaren 29an, EIOZ kuotan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantzak 5.3.3.4 artikuluan aurreikusitako hobaria egiteko eskatu da.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Ondorengo puntuan adieraziko den baldintzapean, GIZARTE INTERESEKOTZAT JOTZEA Landa katastroko 4. poligonoko 361 lurzatia ixteko horma berreraikitze egindako obra. Lurzati hori Mendiola Elizatean dago. Ondorioz, eta ezarritako baldintza beteta, EIOZetik sortutako kuotaren %90eko hobaria ematea.

**Bigarrena:** Hobaria onartzeko baldintza izango da interesatuak alde aurretik adierazpen formal bat aurkeztea. Bertan jaso beharko da lurzatia ixteko horma berriaren eta bidearen artean -luzera osoan- gelditzen den gunea libre geldituko dela edozein igarotzeko, eta gunea hori egoera onean zainduko duela bidearen erabilzailleentzat.

**Erabakia hartu ondoren, Madinabeitia jauna bilkurara itzuli da berriz.**

#### **10. EIOZ-EN HOBARIA EGITEKO JOSE ARANA PATRONATUAK EGINDAKO ESKAERA.**

2013ko azaroaren 20ko Alkate erabakiz, hirigintza lizentzia eman zitzaion JOSE ARANA PATRONATUKO FUNDAZIOARI ondoren adierazten diren obrak egiteko: Gaztañadui kaleko 24. zenbakian dagoen Jose Arana zaharren egoitzako bigarren solairua zaharberritzea Luis M<sup>a</sup> Alberdi Agirre arkitekto tekniko jaunak egindako proiektuaren arabera.

Lizentzia ematearekin batera, lizentziak sortutako tasa eta zergak kitatu ziren behin-behinekoz, 245,15 € eta 3.954,35 € hurrenez hurren.

2013ko abenduaren 3an, EIOZ kuotan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantzak 5.3.3.4 artikuluan aurreikusitako hobaria egiteko eskatu da.

Haziendako batzorde informatzailearen proposamena ikusi da.

Eskaera egiteko arrazoiak justifikatu duenez Fundazioak abenduaren 16an, Udalbatzarrak, bertaratutako guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** GIZARTE INTERESEKOTZAT JOTZEA Jose Arana zaharren egoitzako 2. solairuko zaharberitze obrak; eta ondorioz, EIOZetik sortutako kuotaren %95eko hoberia ematea.

**11. GIZARTE GARAPEN ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMA BIDEZ ESKORIATZAKO UDALAK TOKI GARAPENA SUSTATZEKO EMANGO DITUEN DIRU LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUEN OINARRIAK ALEGAZIOEI BURUZKO ERABAKIA ETA BEHIN BETIKO ONARPENA.**

GIZARTE GARAPEN ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMA BIDEZ ESKORIATZAKO UDALAK TOKI GARAPENA SUSTATZEKO EMANGO DITUEN DIRU LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK hasiera batean onartu zituen Udalbatzarrak 2013ko urriaren 29an.

Oinarri horiek jendaurrean jarri ziren iragarkia jarrita 2013ko azaroaren 5eko GAO n (105. zenbakia). Tramite horren barruan alegazioak aurkeztu dituzte MURUONDO GELLA ELIZATEKO BIZILAGUNEN ELKARTEAK, BASOTXUETA MENDIOLA ELIZATE ELKARTEAK, eta bi elizateetako hainbat bizilagunek.

Alegazioak Ogasun batzorde informatzailean ikusi eta aztertu ondoren, proposamena egin zaio Udalbatzar honi.

Hitza eman ondoren, honako hauek hitz egin dute:

- Merino jaunak esan du abstenitu egin behar dela alegazioen zein oinarrien aurka dagoelako.

- Madinabeitia jaunak ondorengoa esan du:

Eskoriatzan merkataritza suspertzeko proposamena edo ideia helburu ontzat jo dezaket, emaitza neurtzea zaila izan arren helburu horiek neurtzea zaila denez (ez direlako horretarako adierazlerik jarri), baina, gutxienez, ahalegin saio bat da.

Helburu hori lortzeko zerga karga batzuen hobariak axtrokitan (tokiko moneta gisa) emanez merkataritza suspertzea nola planteatu den eztabaidagarria bezain onargarria izan daiteke, nola onartu gura den arabera, baina, uste dut Udalaren aukera bat dela, hori sustatzen dutenek borondate onez egindakoa.

Hala ere, hori eskoriatzar guztiei inposatzeak uste dut ez dituela aintzat hartzen hainbat errealitate, beste egoera batzuetan bizi direnek ezin dituztenak ez baloratu ez sentitu. Eguneroko bizitzaren ikuspegi eta bizipenak ikuspegi herrigunezentriko eta hiritarretik bizi dituen urrun dago geografia eta historia baten ondorioz oso ezberdin bizi eta sentitzen dutenekin enpatia izatetik eta haiek sentitzen dutena sentitzetik. Egia da administrazio egiturak hainbat portaera inposatu ditzakeela herri batean, baina, inposatzea baldin bada, kalteak jasan beharko dituzten batzuen kontura izango da, nahiz eta inposizio horren aurka egon; eta baliteke horiengan helburua ez lortzea, izan ditzaketan aukerei uko egin diezaioketelako onuragarri baino garestiago atera bailitzaizkieke.

Ikusi duzue arau horren aurka dagoela Eskoriatzako herritarren zati bat, arauak ez dakarzikielako onurarik, kalterik baizik. Batzordearen diktamena ikusita, uste dut ez diezuela entzun eta kontuan hartu behar, nahiz eta beraien arrazoi objektiboak izan. Pertsona horiek edo gizarte gune horiek jasan beharreko –eta horietan datza guk ordezkatzeko dugun hautesle elkarte udal honetan egotea- beste koska bat da, eta koska horretan ikusten eta gauzatzen da landa gune horrekiko dagoen sentsibilitate txikia.



Alegazioaren alde nago, ez baitoa Eskoriatzako merkataritzaren aldeko ekimenaren aurka eta ez baitu inor negatiboki baztertzen, baizik eta aukera ematen die herritar batzuei kalte egiten dien inposizio bat saihesteko.

Diktamenaren itxurari edo testuari dagokionez, alderdi bat aipatu nahiko nuke, honako hau: "2. Oinarri arautzaileetako arrazoiaren azalpenean ezarritako helburu orokorra lortzeko, hau da, toki garapena bere hiru alderdietan (soziala, jasangarria eta ekonomikoa), oinarrietan aurreikusitako laguntza-programa bakoitzean aurreikusten diren neurriek elkarri eragiten baldin badiote lortu daiteke bakarrik, eta hori soilik lortu daiteke neurri horiek udalerriri osorako hartzen baldin badira eta bizilagun guztiek parte hartzen baldin badute, inolako bereizkeriarik egin gabe arrazoi geografikoengatik". Uste dut adierazpen hori handiustekoa eta doanekoa dela, inolako oinarririk edo arrazonamendurik gabe, eta inolako azalpen sozial edo ekonomikoan oinarritu gabe; hitzak politikak dira, baina, beste ezer ez, hutsala da. Nik gauza bera esan dezaket, baina, alderantziz, eta inolako oinarririk izan gabe, hori ere hutsala izango litzateke eta autoritate bera izango luke, hau da, bat ere ez. Zorroztasun handiago eskatuko nuke baieztapenetan oinarri empirikoa ez bada ere, gutxienez oinarri teoriko edo arrazionala eman, esandakoak objektiboki oinarri bat izateko. Eta ez dut testu horren azterketarik egingo logikaren aldetik (dituen silogismoak aztertuz), eta ez Deskartesaren Metodoaren printzipioak ez dialektikarenak (tesia, antitesia eta sintesia) aplikatuko ere; eta ez dut uste inolako teoria ekonomikorik adierazten duenik ere, nik, behintzat, ez dut ezagutzen; eta Administrazio Zuzenbidearen ikuspegitik uste dut gaur egun demokraziaz ulertzen dugunaren teoriaren ikuspegitik pixka bat zalantzarik izan daitekeen pentsamoldean errotuta egongo litzatekeela (baina, uste dut badagoela aretoan nik baino gehiago ikasi duenik arlo horretan).

Baieztapen hori bere horretan onartu dezakezue, baina, espero dut katedrarik ez ezartzerik honakoaren ezagutzan: "garapena bere hiru alderdietan (soziala, jasangarria eta ekonomikoa)..."

Alkate jauna: nik diktamena berresten dut. Alegazioetan eskatzen zen aukera egotea diru laguntza axtrakietan edo dirutan kobratzeko, eta hori bere garaian eztabaidatu zen, eta erabaki zen eraginkorragoa zela eta azken helburua lortzea hobeto bermatzen zuela guztiek berdin kobratzeak. Gainera, administratiboki urruti sentitzen diren eskoriatzarrak egon badaitezke ere, uste dut laguntza eskatzera etortzen diren bezala axtrokiak gastatzera etor daitezkeela. Beharbada, zuk deitzen diozun ikuspegi herrigunezentrista izan daiteke, eta baliteke beste batzuen ikuspegia nik ez ulertzea, baina, gaia ikusteko nire modua da.

Urrutia jauna: nik diktamenaren alde bozkatuko dut, bere garaian osoko bilkuran izan nuen iritziri eusteko. Iñakiren diskurtsoetik badira pare bat gauza ez ditudanak onartzen. Ikuspegi herrigunezentrista dugula esatea, uste dut ez dela egia, eta uste dut bere garaian egin nuela herrigunezentrista ez zen planteamendu bat, elizateek beraien egitekoa indartzeko, eta hori Udalaren Antolamendu Erregelamendua onartu zenean izan zen. Bestalde, legearen aurrean denok berdinak izatea dakar demokraziak, eta hor ez dut uste arazoa azpimarratetik datorrenik, hemen falta dena herri bat sortzeko, egiteko eta osatzeko ikuspegia da. Eta ez bakarrik arazo horretan, baita beste batzuetan ere.

Eztabaida amaituta, Madinabeitia jaunak aurka bozkatuta, Merino jauna abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** GIZARTE GARAPEN ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMA BIDEZ ESKORIATZAKO UDALAK TOKI GARAPENA SUSTATZEKO EMANGO DITUEN DIRU LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIEN hasierako onarpenaren aurka MURUONDO GELLA ELIZATEKO BIZILAGUNEN ELKARTEAK, BASOTXUETA MENDIOLA ELIZATE ELKARTEAK eta elizate bietako hainbat auzotarrek aurkeztutako alegazioak EZ ONARTZEA

Alegazioak ez onartzeko arrazoiak honako hauek dira:

1. Gellao eta Mendiolako bizilagunei bakarrik emanez gero laguntza dirutan kobratzeko aukera eta ez espezetan, arrazoi geografikoengatik egindako bereizkeria izango litzateke, eta ez da arrazoizkoa ez egokia ikusten oinarrietan araututako laguntzekin lortu nahi diren helburuetarako.
2. Oinarri arautzaileetako arrazoi azalpenean ezarritako helburu orokorra lortzeko, hau da, toki garapena bere hiru alderdietan (soziala, jasangarria eta ekonomikoa), oinarrietan aurreikusitako laguntza-programa bakoitzean aurreikusten diren neurriek elkarri eragiten baldin badiote lortu daiteke bakarrik, eta hori solik lortu daiteke neurri horiek udalerrri osorako hartzen baldin badira eta bizilagun guztiek parte hartzen baldin badute, inolako bereizkeriarik egin gabe arrazoi geografikoengatik.

**Bigarrena:** GIZARTE GARAPEN ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMA BIDEZ ESKORIATZAKO UDALAK TOKI GARAPENA SUSTATZEKO EMANGO DITUEN DIRU LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUEN OINARRIAK behin betiko onartzea, eta oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## **12. GALDE-ESKEAK.**

- Urrutia jauna:

Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazio ordenantzaren aldaketa.

Galdetu du ea zer nolako tramitazio eman behar zaion ordenantzak eragiten dienekin izandako bileran egindako proposamenari

Erantzun zaio proposamenaren edukia araberan. Edukia aztertu beharko dela, eta ondoren erabaki beharrezkoa den edo ez jendaurrean berriz jartzeko tramitea egitea edo ez.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazioa.

Txostena zertan den galdetu du.

Alegazio aldian dagoela erantzun zaio, eta txostena jasotakoan horren berri emango dela.

Landa bideen ordenantza

Alegazioei buruzko erabakiak zer fasetan dauden galdetu du.

Txostena egiten ari direla erantzun zaio, eta txostena egiteko ardura duen teknikariak epe luzeagoa ematea eskatu duela. Aurreikusten da urtarrileko udalbatzarrerako egongo dela, edo, gehienez ere, otsailerakorako.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 17:45ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

Jose María Herce Isasmendi  
Igor Ezpeleta  
Jose Angel Petralanda Gil  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko abenduaren 17an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ez Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Iregui eta Landa andreak eta Cantero jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 17 de diciembre de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten las Sras. Iregui y Landa y el Sr. Cantero.

## **1. COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA**

No se producen.

## **2. RATIFICACIÓN DE LA INCLUSIÓN DE ASUNTOS DENTRO DEL ORDEN DEL DÍA DE LA CONVOCATORIA.**

A excepción del punto segundo, respecto al que se abstiene el Sr. Madinabetia, por unanimidad de todos los corporativos presentes, se acuerda ratificar la inclusión de los siguientes asuntos en el orden del día:

- PRORROGA EL CONTRATO DE LIMPIEZA DE EDIFICIOS PUBLICOS
- SOLICITUD DE BONIFICACION EN ICIO CURSADA POR D. IÑAKI MADINABEITIA

## **3. APROBACION DEL V PLAN DEL USO DEL EUSKERA**

En el año 2013 se ha dado comienzo al V periodo de planificación para la normalización del euskera en la CAV, de acuerdo decreto 86/97 que regula el proceso de normalización del euskera en las administraciones públicas de la CAV, corresponde al Ayuntamiento de Eskoriatza adecuar el plan de uso del euskera durante el primer año del periodo de planificación, esto es, en el 2013.

Por ello, el 27 de noviembre se presentó en la comisión de Comunicación y Participación el plan denominado "Plan de uso del euskera en el Ayuntamiento de Eskoriatza: propuesta de adecuación. V periodo de planificación (2013-2017).

De conformidad con la propuesta elevada desde la comisión, y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el pleno ACUERDA:

**PRIMERO:** Aprobar el V plan (2013-2017) de uso del euskera en el Ayuntamiento de Eskoriatza.

**SEGUNDO:** Notificar la aprobación a la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco.

## **4. PRORROGA DEL CONTRATO DE LIMPIEZA DE EDIFICIOS PUBLICOS.**

Mediante Resolución de Alcaldía de fecha 29 de diciembre de 2010 se acordó adjudicar el contrato para la prestación del servicio de limpieza de edificios a la empresa HEMEN GARBIKETAK S.L. El plazo inicial de duración del contrato era de DOS años.

